

Sostiene Pereira liburuaren itzulpena eta lagun faltsuak

FERNANDO REY

Aurten *Sostiene Pereira* liburuaren itzulpena bukatu dut. Antonio Tabucchiren liburu ospetsu hau –Marcelo Mastroiani protagonista den bertsiio zinematografiko ezaguna duena– segur aski *Pereirak dioenez* izenburuarekin argitaratuko du Igela argitaletxeak 2006an.

Artikulu honen helburua esperientzia praktikoko baten berri ematea da, hots, euskaratzeko prozesuan itzultzaileak itzultze-lanaren beraren gainean egindako gogoeta xume bat eskaintzea. Segur aski eskaintzen diren gogoeta eta proposamenak ez dira berriak, baina sinetsia nago interesgarria dela, itzulpengintzari buruzko aldizkari honetan, teorizazioekin batera, esperientzia zehatzen fruitu diren elementuak ere nabarmentzea.

Artikulu honetan, bestetik, italieratik euskarara egindako itzulpen honetan agertutako *falso amico*en zerrenda bat eskaintzen da, itzulpengintzan bereziki zaindu behar den eta maiz okerbidera eraman gaitzakeen fenomeno honen adibideekin batera. Poztuko nintzateke italieratik euskarara itzultzen aritzen direnentzat lagungarriak edo, bederen, jakingarriak baldin balira.

Itzultzeko ariketaren ezaugarriak

Itzulpena, itzulpen literarioa batik bat, buru-ariketa berezia da. Itzuli beharrak ezinbesteko egiten du itzultzailea testuan murgiltzea eta, ondorioz, irakurle arruntak izaten ez dituen aukera batzuk izaten ditu itzultzaileak. Horregatik esaten dugu, bada, itzultzailea irakurle pribilejiatua dela. Hori bera nabarmentzen du Joseba Sarrionaindiak *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* liburuaren aitzin-solasean: «Itzulpena irakurlearentzat irakurri ezin duen testu batetara hurbiltzeko modu errez bat besterik ez da. Baina itzultzailearentzat bere translazio lana testua modu sakonean ezagutzeko bidea da. Itzultzailea irakurle pribilejiatua da, bere ber irakurketa bere ber izkiriartzearekin batzen duenean testua ukitzeraino hurbildu ahal bait da.»

Nire kalkuluen arabera, literaturaz ari garela betiere, itzultzaileak hamar bat aldiz irakurtzen du liburua, sakontasunez, esaldi bakoitzaren semantikari eta joskerari arreta handiz erreparatuz, itzultzeko prozesuaren helburu nagusietako bat ongi bete dadin: egileak idatzi zuenarekiko fideltasuna gordetzea, bai edukian, bai forman, xede-hizkuntzan idatzitako testuak jatorrizko testuaren eduki eta musika bera izan ditzan. Jakina, bigarren helburua, gure kasuan, jatorrizko testuak dioena euskara onean ematea da, eta horrek ere testuan murgildu beharra eskatzen du: ikertu, kontsultak egin, informazio bila ibili eta, azkenik, zenbait zuzentzailearen eta irakurlearen eskuetan utzi, beren aportazio, iradokizun eta kritikak egin ditzaten.

Bistan da, beraz, literatura itzultzeak zenbait aukera eskaintzen dituela. Aukera horiek bihurtzen dute itzultze-lana, nire kasuan, erakargarri. Itzultzaile bakoitzak jakinen du zerk bultzatzen duen lantegi horretara. Baina, nire kasuan, maiz lan neketsu eta esker txarrekoa izanagatik, arrazoi hauek bilakatzen didate itzultze-lana gustagarri eta gozagarri:

- a) Ikasteko eta euskara aberasteko modua da. Hamaika kontsulta egin behar izaten da. Ikertu beharrean egoten naiz eta galdeka ibiltzen naiz han-hemenka hau edo hori nola esaten den edo nola esan litekeen. Itzulpena, alde horretatik, talde lana da: askoren aportazioak biltzen dira itzulpen batean, eta emaitza aberasbide eta ikasbide izaten ahal da beste batzuentzat.
- b) Euskaratzean, ezinbestean sartzen zara idazleak idatzi duen horretan. Azkenean idazlearekin identifikatzen ailegatzen zara, zenbait gauzatan bederen. Idazleak zergatik eta zer adierazi nahi zuen galdetzen diozu zeure buruari eta azkenean bat egiten duzu, neurri batean, bere sentimenduekin. Idazlea nor den ikertzen duzu, zer eta nola idazten duen, zerk bultzatuta idazten zuen.
- c) Sormen lan bihurtzen da parte batean. Oreka zailean ikusten du itzultzaileak bere burua. Fidela izan nahian, gordeka eta ezkutuan egon behar du itzultzaileak, oharkabean pasatu. Baina testuak bizia izanen badu, ezinbestean jartzen du bere zeretik, eta sortzaille ere bilakatzen da, testua bere eginez. Zure eskua eta bihotza sartu ezean, testuak ez du bizirik. Gehiegi sartuz gero, traizionatu egiten duzu testua.

Metodologiaz hiru ohar tiki

Euskaratzerakoan eta euskaratu bitartean erabiltzen dugun metodologiaz gauza asko esan litezke, baina gaur hiru gauza nabarmendu nahi ditut, teknologia berrietan aditua edo aritua denari joan den mendeko akolkuak irudituko zaizkionak, baina informatikan trebe ez garenontzat lagungarriak izaten ahal direnak.

Jatorrizko testua eskaneatzea. Jatorrizko testua eskaneatua izatea laguntza handia da testu barreneko koherentzia bilatzerakoan, testu barreneko bilaketak egiteko.

Bidaia-liburua. Bidaia-kaiera moduko zerbait izatea lagungarria da maiz. Itzultzen duzun heinean, hartzen dituzun erabakiak apuntatzeko, edo zailtasunei emandako soluzioak apuntatzeko.

Hustuketa. Liburua bukatuta, zailtasun berezia izan duten esamolde edo hitzen hustuketa. Seguruena batzuek trados edo halako baliabideak dituzte lan literariorako ere, baina teknikan oraindik XX. mendean gaudenontzat baliabide ona izan daiteke, geroagoko itzulpenetan erabiltzeko.

LAGUN FALTSUAK

Lagun faltsuak hizkuntza batean (jatorrizko hizkuntzan) eta beste batean (xede-hizkuntzan) elkarren antza izanagatik oso bestelako esanahia duten hitzak dira. Bi hizkuntzaren arteko harremanetan, beraz, okerreko bidea ematen dute. Lagun faltsuek hanka sarrarazten digute, batik bat bi hizkuntzetan dugun ezagutza parekoa ez denean.

Akatsak eginarazten dizkigute lagun faltsuek, kontu handiz ibilarazten gaituzte. Maiz agerian uzten dute ez dugula beste hizkuntza behar bezala ezagutzen. Bestela esanda, eta “traduttore traditore” esamoldeari jarraikiz, traditoreago egiten gaituzte itzultzaileok.

Adibide mordoa eman genezake, baina bat –eta ez tipikoena– emateagatik, esan dezagun “ostiko” lagun faltsu bihurtu dela euskaldun berri askorentzat eta “hostia” hitzarekiko hurbiltasunagatik erabiltzen dela gaur egun toki askotan “hostia” esateko, ohartu gabe “ostikoa” “patada” edo “coz” dela eta ez zartakoa edo belarrondokoa.

Gauza bertsua gertatu da “kolpatu” hitzarekin. “Kolpatu” zauritu aditzaren sinonimoa bada ere –hala erabili da orain arte Iparraldeko euskalkietan–, “golpear” dela uste dute zenbaitetik, eta “Krutxagak baloia kolpatu du” aditzen da Osasunaren futbol partidak irratiz zoragarri transmititzen dituen kazetari baten ahotik.

“Dorpe” hitzarekin antzeko fenomeno dugu. “Dorpe” hitzak krudela, gogorra edo zorrotza esan nahi du, baina euskaldun gaztelaniadunok arrisku handia dugu “traketsa” esan nahi duela uste izateko, “torpe” hitzetik hagitz hurbil baitago itxuran.

Gure inguruko hizkuntzetan finkatua dago fenomenoaren izena: *falsos amigos* (gaztelaniaz), *faux amis* (frantsesez), *falsi amici* (italieraz), *false friends* eta *false cognates* (ingelese). Euskaraz ez dut ikusi nik termino finkaturik eta bestelako proposamenak egon balitezke ere, “lagun faltsuak” paratu dut nik artikulu honen izenburuan. Bestelako izena ere eman lekiokie, lagun aizunak, irristagailuak... baina gehiegi ez urruntzeagatik bestelako tradizioetatik halaxe idatzi dut nik.

Lagun faltsuen fenomeno hizkuntza guztien artean gertatzen da, baina bereziki arriskutsua da hurbilekoen artean. Are arriskutsuagoa da, nire ustez, euskararen kasuan, fenomeno ez baita gertatzen bi hizkuntza nagusiren artean baizik eta, gure hizkuntzaren normalizazio falta dela-eta, egoera diglosikoan bizi den hizkuntza batean.

Gaztelania eta frantsesa

Bestetik, berezia da fenomeno hau euskaldunontzat. Kontuan hartu behar dugu euskaldun guztiok garelako gaur egun edo gaztelaniadunak edo frantsesdunak. Horregatik, hirugarren hiz-

kuntza batetik euskaratzen dugunean lagun faltsu bihurtzen zaizkigu gaztelaniarentzat edo frantsesarentzat halako direnak.

Italieratik euskarara itzultzen dugunean, ezin dugu ebitatu gaztelaniak edo frantsesak zubi-lana egitea. Italierazko testu bat dugunean aurrez aurre, gaztelaniaz edo frantsesez badakigu-nez, ezinbestean zubi-hizkuntza bihurtzen zaigu itzulpenaren buru-prozesuan, eta hitz bat zuzeneko “lagun faltsu” ez bada ere, halaxekoa bihurtzen da guretzat.

Italieraren “**fracassare**” aditza euskaratu behar dugunean, ez da zaila, nire kasuan gaztelaniaren bitartez, “**frakasatu**” jartzeko tentazioa sentitzea, nahiz eta, berez, “**txikitu**” izan esanahia. “**Naturalezza**” hitza irakurrita aise pentsatuko genuke askok “**natura**” dela esanahia, “**naturaltasuna**” izanik ere ordain egokia.

Jakina, lagun faltsuen zerrenda desberdina izanen da gaztelaniaz dakien euskaldunarentzat edo frantsesez dakien euskaldunarentzat. Hegoaldeko euskalduna izanda, zerrenda bat atera zait niri. Iparraldeko euskaldunak bestelako zerrenda egingen luke noski.

Horregatik iruditu zait interesgarria *Sostiene Pereira* liburua italieratik euskarara itzultzean gaztelaniak jartzen dizkigun irristagailuak nabarmentzea. Baina zerrenda eman baino lehenago, zenbait hitz esan nahi ditut gaztelaniaren eta italieraren arteko lagun faltsuei buruz.

Italiera eta gaztelania hizkuntza hurbilak dira, eta antz grafiko eta fonetiko handia izanda ere, asko eta asko dira okerbidera garamatzaten hitzak. Hiru adibide jarriko ditut:

I passeggeri dell'Alitalia sono atterrati

Los pasajeros de Alitalia han atterrizado (*baina ez daude izututa*)

Il paziente attende il medico

El paciente espera al médico (*baina ez dio kasu egiten*)

La mia amica soffre di verme solitario

Mi amiga padece de lombriz solitaria (*baina ez ni bakarrik ikusteagatik*)

Bi hizkuntzen arteko lagun faltsuen kopurua handia da eta haietako batzuk oso ezagun eta agerikoak badira ere, asko daude okarkabeen pasatzen ahal zaizkigunak.

Falso amicoen sailkapen hau eskaintzen dute zenbaitek:

- 1) Lagun faltsu homonimoak (grafia eta ahoskatzeko modu bera bi hizkuntzetan, baina esanahia desberdina). Adibidez: *pasto* ≠ *pasto* (bazka, larrea ≠ otordua).
- 2) Lagun faltsu homografoak (grafia bera baina ahoskatzeko modu desberdina; idatzita ikusten ditugunean nahas ditzakegu). Adibidez: *solito* ≠ *solito* (bakar-bakarrik ≠ ohiko).
- 3) Lagun faltsu homofonoak (grafia desberdina eta ahoskatzeko modu bera; beraz entzutean dira okerbide). Adibidez: *cacio* ≠ *cacho* (gazta ≠ puska, ezker).

- 4) Lagun faltsu paronimoak (grafian edo ahoskatzeko moduan antzekoak baina ez berdinak). Adibidez: tovaglia ≠ toalla (mahai-zapia ≠ esku-zapia).

Beste saikapen bat ere egin genezake:

- 1) Lagun faltsu puruak. Esanahi erabat bestelakoa duten hitzak. Adibidez: “burro” hitzak italieraz gurina esan nahi baitu, eta gaztelaniaz astoa.
- 2) Lagun faltsu partzialak. Hots, hitzaren adiera batzuetan dira lagun faltsu, baina ez beste batzuetan. Zenbaitetan adiera nagusian eta beste zenbaitetan bigarren mailako adieretan. Abididez: “anzianità”, adiera batean esanahi bera du gaztelaniaz “ancianidad” (zahartasuna), baina beste batean “laneko antzinatasuna”. Hitza bigarren adiera horretan erabiltzen denean bihurtzen da lagun faltsu.

Itaileratik gaztelaniarako zenbait lagun faltsu Sostiene Pereira liburuan

Hiruko multzoen lehenbiziko lerroan italierazko hitza sartu dut, baita *falso amicotzat* hartutako hitza liburuan ageri den esaldia ere, testuingurua lagungarri izan dadin.

Bigarren lerroa gaztelaniarena da. Bertan ikus daitezke hitz horien esanahia eta okerbidera eramaten gaiten hitza.

Hirugarrenean euskarazko itzulpena ageri da.

Abito (Si cambiò di abito; un abito da sera)

Traje, vestido (*adiera honetan*)

Arropa, jantzia, soinekoa (arropaz aldatu zen; gaueko soineko bat)

Affanno (L'affanno a salire le scale)

Jadeo, ahogo (Afán: impeno, diligenza)

Hatsandia, arnasestua, hatsanka (Eskaileretan gorako arnaestuak, hatsandia)

Albergo (L'albergo delle terme era splendido)

Hotel (albergue: alloggio; rifugio, ostello della gioventù)

Hotela (bainuetzeko hotela bikaina zen)

Allargare (Allargò le braccia)

Anchar (alargar: allungare)

Zabaldu (besoak zabaldu zituen)

Altezza (Discese all'altezza della cattedrale)

Altura (*adiera honetan*)

Altuera, -ren parean (Katedralaren parean jaitsi zen)

Anche (Anche lui è un cattolico)
 También (aunque: anche se, sebbene, benché)
 (Baita) ere (bai) (Hura ere katolikoa da)

Ansia (Non voglio metterle ansia)
 Preocupación (*adiera honetan*)
 Kezka, antsia (*) (*ez zaitut kezkatu nahi*)

Apprendere (una notizia) (Lei lo apprenderà)
 Enterarse (*adiera honetan*)
 Jakin, -ren berri izan, ikasi (*) (*jakinen duzu, ikasiko duzu*)

Attaccare a (Attaccarono a suonare)
 Comenzar a (*adiera honetan*)
 Hasi, -ri ekin (*jotzen hasi ziren, jotzeari ekin zioten*)

Attaccato (Attaccato alla porta)
 Pegado, sujeto, colgado (*adiera honetan*)
 Itsatsita, josia (*atean itsatsita*)

Attendere (Deve attendere qualche minuto)
 Esperar (Atender: - acudir, assistere i malati
 - servire i clienti.)
 Itxoin, itxaron (*minutu batzuetan itxoin behar duzu*)

Atto (Fece l'atto di alzarsi)
 Amago, ademán (*adiera honetan*)
 Keinua (*jaikitzeke keinua egin zuen*)

Bagnarsi (Tutto bagnato)
 Mojarse (*bañarse: fare il bagno*)
 Txipatu, blaitu (*txipatua zegoen erabat*)

Banco (Dormicchiava dietro il banco)
 Barra, mostrador (*adiera honetan*) (banco: - banco della chiesa, del falegname.
 - banco, banca di Napoli.)
 Barra, erakusmahaia (*erdi lo zegoen barraren atzean*)

Bara (La bara era scoperta)
 Ataud (Vara: ramascello, bastone)
 Hilkutxa, zerraldoa (*zerraldoko estalkia kendua zegoen*)

Biglietto (Gli lasciò un biglietto)

Nota (*adiera honetan*) (billete: banconota)

Oharra (ohar bat utzi zion)

Boa (Boe e salvagenti gonfiabili)

Boya (*adiera honetan*)

Buia (buiak eta puzteko salba-gerrikoak)

Bollito (Pesce ai ferri o bollito)

Hervido (bollo, bollito: brioche, cornetto)

Irakina (arraina plantxan edo irakina)

Burro (Sogliola alla mugnaia con carote al burro)

Mantequilla (burro: - asino, somaro

- ignorante, testardo, zotico)

Gurina (mihiarraia *meuniere* erara gurinetan gorritutako azenarioekin)

Buscare (I repubblicani le stiano buscando)

Ganar, obtener, coger (buscar: cercare)

Irabazi, gailendu (errepublikazaleak gailentzen ari zaizkio)

C'entrare (Cosa c'entra con il *Lisboa*?)

Tener que ver

Zerikusia izan, ikustekoa izan (Zer ikusteko du *Lisboarekin*?)

Cacciare (Abbiamo cacciato il re)

Expulsar (*adiera honetan*)

Bota, bidali, kanporatu (erregea bota dugu)

Caldo (Faceva troppo caldo; Un uomo che sudava dal caldo)

Calor / caliente (caldo: brodo)

Beroa (bero handiegia egiten zuen; beroagatik izerditzzen zen gizon bat)

Camera (Camera d'affitto; Prenotare una camera)

Habitación (*adiera honetan*)

Gela (alokairuzko gela bat; logela bat erreserbatu)

Camice (Un camice bianco)

Bata, alba (camisa: camicia)

Mantala, bata (mantal zuri bat)

Carta (Festoni di carta)
Papel (Carta: lettera)
Papera (paperezko oxkarrak)

Cassetta (La cassetta delle lettere)
Buzón de las cartas (*adiera honetan*)
Gutunontzia

Cassetto (Pensò di metterli in un cassetto)
Cajón (casete: musicassetta, cassetta)
Kajoia, tiradera (tiradera batean gordetzea pentsatu zuen)

Cavalleria (Un gesto di cavalleria)
Caballerosidad (*adiera honetan*)
Gizalegea (gizalege-keinu bat)

Celebrare (Può sempre celebrare Camoes, che è il nostro grande poeta nazionale)
Elogiar, alabar, ensalzar (*adiera honetan*)
Goraipatu, goretsi, ospatu (*) (beti goraipatu daiteke Camoes, gure poeta nazional handia baita)

Cervello (Dovrei pensare col cervello)
Cerebro (cerebelo: cervelletto)
Burmuina, zerebroa (buruarekin pentsatu beharko nuke)

Chissà!
¡Véte a saber, quién sabe! (quizá: forse)
Auskalo, batek daki

Cima (Cima degli alberi)
Copa (*adiera honetan*)
Adaburua (arbolen adaburua)

Cima (In cima era scritto)
Parte de arriba (*adiera honetan*)
Goia (goialdean idatzia zegoen)

Compromesso (Un uomo pieno di ombre e compromessi)
Componenda (*adiera honetan*)
Amarrua, trikimailua (itzalez eta amarruz betetako gizona)

Confuso (Confuso con l'universo)

Mezclado, fusionado (*adiera honetan*)

Bat eginik (unibertsoarekin bat eginda)

Consegnare (Il foglio che gli aveva consegnato Marta)

Entregar, dar (consignar: depositare, stanziare)

Eman, eraman (Martak eman zion orria)

Contrastante (Notizie contrastanti)

Contradictorio, contrapuesto (*adiera honetan*)

Kontrajarria (berri kontrajarriak)

Coperta (Una coperta di cotone sulle lenzuola)

Manta (*adiera honetan*)

Manta (kotoizko manta bat maindireen gainean)

Coppia (Qualche coppia ballava)

Pareja (copia: copia)

Bikotea (Bikote batzuk dantzan ari ziren)

Creerà (Credo che questo creerà dei problemi)

Crearà (Creerá: crederà)

Sortuko du (uste dut honek problemak sortuko dituela)

Cura (Con cura)

Con cuidado (cura: prete, sacerdote)

Kontua, arreta (kontu handiz, arretaz)

Discutere (Una tesi discussa; discutere la tesi)

Defender, presentar (*adiera honetan*)

Aurkeztu, defendatu (aurkeztutako tesia; tesia denfendatu)

Disegnare (Non ho più voglia di disegnare)

Dibujar (diseñar: progettare, creare)

Marrastu (ez dut gehiago marrazteko gogorik)

Disegnatore (Il disegnatore d'avanguardia)

Dibujante (no diseñador) (*adiera honetan*)

Marrazkilaria (abangoardiako marrazkilaria)

Disertare (Disertano le lezioni)

Abandonar, fallar a clase (disertar: dissertare)

Eskola utzi, eskola huts egin (eskolak uzten dituzte)

Distaccata (Una redazione culturale distaccata)

Separada, aparte (destacada: rinomata, celebre, famosa, nota)

Bereizia, apartekoa (bereizita zegoen erredakzio kultural bat)

Esprimere (Esprimere la mia opinione)

Expresar, manifestar (exprimir: spremere)

Adierazi (nire iritzia adierazi)

Fallito (Era un letterato fallito)Fracasado (*adiera honetan*)

Frakasatua (idazle fracasatu bat zen)

Feria (Era in ferie)Vacaciones (*adiera honetan*) (feria: - feria del libro

- mercado del bestiam)

Oporretan (oporretan zegoen)

Fiero (Si sentiva fiero)

Orgullosa (fiero: feroce, selvaggio)

Harro (harro sentitzen zen)

Figuriamoci (Figuriamoci, avrebbe voluto rispondere Pereira)Lo que nos faltaba; Faltaría más (*adiera honetan*)

Hori falta genuen (Horixe falta genuen, erantzun nahiko zuen Pereirak)

Filo (Sputò il filo d'erba che teneva in bocca)Hilo (*adiera honetan*) (filo de la navaja: filo del rasoio)

Haria, izpia (Puzka bota zuen ahoan zeraman belar izpia)

Fracassare (Gli avevano fracassato il cranio)

Destrozar, quebrar, romper, hacer añicos (Fracasar: fallire, fare fiasco)

Txikitu, xehatu (burezurra txikitu zioten)

Frittata (Una frittata al formaggio)

Tortilla (fritada: frittura)

Tortilla (gazta-tortilla bat)

Gamba (Con una gamba di legno)

Pierna (gamba: - gamberetti in pastella fritti (gambas en gabardina)
- meter la gamba: fare un gaffe.

Zangoa, hanka (zurezko zango bat)

Generalità (pl) (Dare le generalità)

Datos personales (*adiera honetan*)

Datuak (datuak eman)

Getto (I getti di vapore)

Chorro (gueto: ghetto)

Zorrotada (lurrun-zorrotadak)

Gota (Una signora grassa dalle gote rosse)

Mejilla, carrillo (gota: - goccia (acqua)

- gotta (malattia)

Masaila, musua (andre gizen musugorri bat)

Guardare (Guardò il soffitto; Si guardò intorno)

Mirar (guardar: mettere via, conservare, rispettare, mettere al sicuro)

Begiratu (sabaira begiratu zuen; ingurura begiratu zuen)

Imbarazzato (Si sentì imbarazzato)

Molesto, incómodo (Embarazada: incinta)

Deseroso, amorratuta... (amorru pixka bat sentitu zuen)

Imbarazzo (Provò un grande imbarazzo)

Malestar, incomodidad (*adiera honetan*) (Embarazo: gravidanza)

Deserosotasuna (deseroso sentitu zen)

Incolta (Barba incolta)

Descuidada, desaseada (*adiera honetan*)

Zaindu gabea, zabarra (bizar zaindu gabea)

Inserviente (L'inserviente passò agitando la campanella)

Sirviente, mozo, machaca (inservible: inservibile)

Zerbitzaria, morroia, mutila (zerbitzaria kanpaitxo bat jotzen pasatu zen)

Larga, largo (Le starà un po' larga; Fece un largo sorriso)

Ancha, ancho (Largo: lungo)

Zabala (nahiko zabal izanen duzu; irribarre egin zuen, zabal)

Laureato, laurearsi (Si è laureato in filosofia a pieni voti)
Licenciado, licenciarse (Laureado, laurear: premiare, decorare)
Lizentziatu (filosofian lizentziatua *cum lauderekin*)

Lettera (La cassetta delle lettere; Lettere commerciali per una ditta)
Carta (*adiera honetan*) (letra: lettere; letra: calligrafia)
Gutuna, eskutitza (gutunontzia; merkataritzako gutunak enpresa batentzat)

Licenziare (Avrebbe voluto licenziarlo)
Expulsar, echar del trabajo (licenciarse: laurearsi)
Lanetik bota (lanetik bidali nahiko zuen)

Loro (È sui loro testi che ho studiato a Parigi)
Ellos (loro: pappagallo)
Haien, beren (haien testuak azertu ditut Parisen)

Macchina (Si diressero alla macchina)
Coche (*adiera honetan*)
Autoa, kotxea (auto aldera abaiatu ziren)

Mancia (Lasciò qualche moneta di mancia)
Propina (mancha: macchia, chiazza)
Propina, eskupekoa (txanpon batzuk utzi zituen eskupeko gisara)

Marcia (Uova marce)
Podrida (*adiera honetan*)
Ustela, usteldua (arrautza ustelak)

Meravigliata (Chiuse la porta con aria meravigliata)
Sorprenido (no maravillada) (*adiera honetan*)
Harritua (harritu samarrrik itxi zuen atea)

Messa (Celebrare messa)
Misa (mesa: tavolo, tavola)
Meza (meza ospatu)

Mezzogiorno (Il suo lato era esposto a mezzogiorno)
Sur (*adiera honetan*)
Hegoa, hegoaldea (bere aldeak hegoaldera ematen zuen)

Moto (Gli ci voleva del moto)

Movimiento (*adiera honetan*)

Mugimendua (mugimenduaren beharra zuela)

Naturalezza (Con la maggiore naturalezza possibile)

Naturalidad (Naturaleza: natura)

Naturaltasuna (ahalik naturaltasun handienarekin)

Negozio (E andò a fare la spesa al negozio dell'angolo)

Tienda (negocio: commercio, affare)

Denda (erosketa egitera joan zen izkinako dendara)

Novella (Descrisse nelle sue novelle)

Cuento, novela corta (novela: romanzo)

Ipuina (bere ipuinetan deskribatu zituen)

Occhiello (Scrisse l'occhiello)

Subtítulo (*adiera honetan*) (Ojal)

Azpitulua (azpitulua idatzi zuen)

Onda (Le onde del mare entravano a loro piacimento)

Ola (*adiera honetan*)

Olatua (Itsasoaren olatuak nahi bezala sartzen ziren)

Opera (perché la sua opera non era tradotta in portoghese)

Obra (*adiera honetan*)

Lana, obra (bere lana portugesea itzuli gabea baitzen)

Ordinare (Ordinò del vino bianco)

Pedir, encargar (*adiera honetan*)

Eskatu (ardo zuria eskatu zuen)

Oso (Pare che giri intorno all'osso)

Hueso (oso: orso)

Hezurra (nik uste bueltaka dabilela hezuraren inguruan)

Paio (Un paio di giorni)

Par (payo: paesano; rozzo, villano)

Parea (egun pare bat)

Palazzo (Sulla piazzetta davanti al palazzo)
Edificio (*adiera honetan*)
Eraikina, eraikuntza (Eraikinaren aurreko plazatxoan)

Panfilo (La gente del panfilo era in paglietta)
Yate (pánfilo: semplicione, tonto)
Yatea, iota (Yateko jendeak lastozko kapelua zeraman)

Pasto (L'ora dei pasti)
Comida (cada una de las comidas) (pasto: foraggio, prato, pascolo)
Otordua (otorduak)

Peccato!
¡Qué lastima! (*adiera honetan*)
Lastima!

Pensiero (È in pensiero)
Preocupación (*adiera honetan*)
Kezka (kezkaturia zegoen)

Pensione (Era in pensione)
Estaba jubilado (*adiera honetan*)
Erretiroa, jubilazioa (erretiroa hartuta zegoen)

Portafoglio (Prese il portafoglio e tirò fuori due banconote)
Cartera (billetero) (portafolio: portadocumenti)
Diru-zorroa (diru-zorroa hartu eta bi billete ateratu zituen)

Possibilmente (Non in redazione, possibilmente)
Si es posible (*adiera honetan*)
Ahal dela, ahal bada (ahal dela, ez erredakzioan)

Presidiare (Non aveva bisogno di essere presidiata dalla polizia)
Controlar, proteger, defender (presidir: presiedere, dirigere)
Kontrolatu, zaindu... (ez zegoen poliziaren kontrolaren beharrik)

Prima, primo (La prima cosa che vide)
Primera, primero (prima, primo: cugina, cugino)
Lehen, lehenbiziko (ikusi zuen lehenbiziko gauza)

Pronto (É pronto per due sabati)

Preparado (pronto: presto)

Prest(atua), pronto (*) (prestatua bi larunbatetarako)

Provare (Si mise a sfogliare quella rivista perché provava noia)

Sentir, experimentar (Probar: - assaggiare un cibo

- dimostrare, provare)

Sentitu (aldizkari bat irakurtzen hasi zen, orri-pasaka, aspertzen zelako)

Provinciale (Spero di non sembrarle un provinciale)

Aldeano (*adiera honetan*)

Arlotea (espero dut zuretzat arlote-itxurarik ez izatea)

Quotidiano (Comprai un quotidiano)

Periódico, diario (*adiera honetan*)

Egunkaria (egunkari bat erosi nuen)

Rame (Ha i capelli color rame)

Cobre (rama/s: ramo/i)

Kobrea (kobre koloreko ilea; ile gorria)

Rampa (Le rampe di scale)

Tramo (de escalera) (*adiera honetan*)

Eskailera-saila (eskailera-sailak)

Restare (Restò a guardare Monteiro Rossi)

Quedarse, permanecer (Restar: sottrarre)

Gelditu, geratu (Monteiro Rossiri begira gelditu zen)

Rivendita (Comprare qualche giornale in una rivendita)

Tienda (al pormenor) (*adiera honetan*) (reventa)

Denda (egunkariren bat erosi denda batean)

Rubrica (Una rubrica di cui mi sono fatto carico)

Sección (periodística) (*adiera honetan*)

Sekzioa (nire ardurapeko sekzio bat)

Rumore (Per non fare rumore)

Ruido, revuelo, escándalo (Rumor: voce, mormorio

- correva la voce che la moglie lo ingannasse.

- il mormorio di una cascata.)

Hotsa, soinua, zarata (soinurik ez egiteko)

Sabbia (Quando arrivò sulla sabbia)

Arena (sabria: saggia)

Harea, hondarra (hondarrera ailegatu zenean)

Sacco (Avrai un sacco di lettori)

Montón (*adiera honetan*)

Mordoa, pila (irakurle mordoa izanen duk)

Salire (Sali le scale)

Subir (salir: uscire)

Igo (eskailerak igo zituen)

Salita (Non ce la faceva a fare la salita a piedi)

Subida, cuesta (salida: uscita)

Aldapa, malda (ez zen gauza sentitzen aldapa oinez igotzeko)

Scaldare (Non aveva voglia di scardarla)

Calentar (escaldar: scottare)

Berotu (ez zuen berotzeko gogorik)

Seccante (Trovò seccante che quel giovanotto gli facesse una lezione)

Impertinente, fastidioso (secante: assorbente)

Itsusia... (itsusia iruditu zitzaion gazte hark lezio bat ematea)

Segnare (Il termometro segnava trentotto gradi)

Marcar (*adiera honetan*)

Markatu (Termometroak hogeita hemezortzi gradu markatzen zuen)

Sembrare (La filosofia sembra che si occupi solo di fantasie)

Parecer (sembrar: seminare)

Iruditu, eman (badirudi filosofia bakarrik fantasiaz arduratzen dela)

Servire (Ci serve del denaro)

Hacer falta (*adiera honetan*)

Behar(ra) izan, premia izan (diru premian gaude)

Sfogliare (Cominciò a sfogliare i passaporti)

Ojear (*adiera honetan*) (anche deshojar)

Orri-pasaka irakurri, begiratu laster bat eman (begiratu bat eman zien, laster, pasapor-teei)

Sicuramente (Risponde sicuramente all'altro)

Con seguridad (seguramente: forse)

Ziur, seguru (ziur besteari erantzuten diola)

Sinistro (Sul lato sinistro)

Izquierdo (*adiera honetan*) (sinistro: - giorno disgraziato.

- sguardo minaccioso, sinistro)

Ezker, ezkerralde (ezkerraldean)

Sistemare (Si sistemò il tovagliolo)

Ordenar, colocar, arreglar, instalar (sistematizar: sistematizzare)

Jarri, paratu, ezarri (Ezpain-zapia jarri)

Solito (Di solito non bevo alcolici)

Habitualmente, normalmente (solito: da solo)

Normalean, jeneralean (normalean ez dut edari alkoholodunik edaten)

Solito (Al solito tavolo)

Habitual, de siempre (*adiera honetan*)

Ohiko, betiko (betiko, ohiko mahaia)

Sospettoso (Con aria sospettosa)

Desconfiado (Sospechoso: - aria sospetta

- persona (sospettato)

Mesfidatia (mesfidantzaz; mesfidati antzean)

Spalla (Mettevano in risalto le sue spalle)

Hombro (espalda: schiena). Non è falso amico in molti modi di dire (vivere a spalle di...)

Sorbalda, besaburua (sorbaldak nabarmentzen zizkioten)

Specie (Specie gli articoli più importante; Specie quando saliva le scale)

Especialmente (*adiera honetan*)

Batez ere, batik bat (batez ere artikulu inportanteenak; batez ere eskaileretan gora)

Sposato (Si sentiva sposato)

Agotado, extenuado (desposado: sposato)

Ahitua (ahitua sentitzen zen)

Stanco (Sono stanco del viaggio)

Cansado (Estanco: tabaccheria)

Nekatua (nekatua nago bidaiagatik)

Sterminata (Ci lascia un'opera sterminata)
Inmensa, vasta, desmesurada (*adiera honetan*)
Izugarri handia, itzela (obra itzela utzi digu)

Stufa (Sono stufa)
Asqueada (*adiera honetan*) (estufa: stufa)
Nazkatua (nazkatua nago, nekatua nago)

Stupito (Sono stupito della sua impudenza)
Soprendido (estúpido: stupido, sciocco)
Harritua (harritua nauka zure lotsagabekeriak)

Subire (Ha subito le grande ingiustizie della Storia)
Sufrir (Subir: salire)
Jasan (Historiaren zuzengabekeria handiak jasan ditu)

Successivamente (Fu successivamente sloggiato)
A continuación (*adiera honetan*)
Gero, geroago (geroago aterarazi zuten)

Successo (Con un gran successo di pubblico)
Éxito (*adiera honetan*)
Arrakasta (arrakasta handia izan zuen)

Suonare (Due vecchietti suonavano la viola e la chitarra)
Tocar (música) (*adiera honetan*)
Jo (bi xahar biola eta gitarra jotzen ari ziren)

Tasca (Se la mise in tasca)
Bolsillo (tasca: osteria, taverna)
Sakela (sakelan sartu zuen)

Tenda (Sotto la tenda)
Lona, toldo (tienda: negozio)
Olana (olanaren azpian)

Tenda (La brezza agitava le tende)
Cortina (Tienda: negozio)
Errezela (haizekirriak errezelak inarrostean zituen)

Tentare (Si poteva tentare, purché se ne parlasse con misura)

Intentar (*adiera honetan*) (tentar: - tastare, palpare

- tentare

- attirare, allettare, tentare)

Saiatu (saiatzea bazegoen, betiere neurritz hitz egiten bazuen)

Tirare fuori (Tirò fuori un foglio piegato; Tirò fuori due banconote)

Sacar (tirar fuera: buttare o gettare via, fuori)

Atera (tolestutako paper-orri bat atera zuen; bi billete atera zituen)

Torta (una fetta di torta)

Tarta (torta: schiaffo, sberla)

Tarta (tarta puska bat)

